

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 465/2018 Erabakia, irailaren 11koa. Onespena ematea aldatzeari AP-1 eta AP-68 autobideko tarte diruz lagungarrietan ordaindutako bidesariengatik Arabako Lurralde Historikoan bizi direnei dirulaguntzak ematea eta horretarako deialdia onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 12ko 317/2018 Erabakian jasoriko dokumentazioa aurkezteko epea

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 12ko 317/2018 Erabakiaren bidez, onspena eman zitzaien AP-1 eta AP-68 autobideko tarte diruz lagungarrietan ordaindutako bidesariengatik ALHn bizi direnei dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarriei. Oinarri horiek eta haien deialdia 2018ko ekainaren 28ko ALHAOn (71. zk.) argitaratu ziren.

Oinarri horien 6. puntuak xedatzen zenez irailaren 1era arteko epea ezartzen zen aurreko deialdietan jada onuradunak zirenek dokumentazioa aurkez zezaten. "...Halaber, aurreko deialdietan onuradun izan direnek ere ez dituzte agiri horiek berriro aurkeztu behar, dirulaguntza emateko kontuan hartzen diren inguruabar erabakigarrietako bat aldatu ezean. Hala ere, artikulua honetan ezartzen diren betekizun guztiak betetzeko behar diren agiriak aurkeztu behar dituzte. Dokumentazio berria 2018ko irailaren 1a baino lehen aurkeztu behar da. Horretarako, Arabako Bideak-Vías de Álava, SA (Arabat) sozietateak idazki bat bidaliko die zer agiri behar den azaltzeko. Epealdi horretan izapide hau egiten ez duten onuradunei baja emango zaie".

Arabako Bideak-Vías de Álava, SA (Arabat) sozietateak egiaztatu du ezen, nola hainbeste eguneratze eskaera iristen ari diren, irailaren 1eko epemuga ez dela nahikoa izango, eta horrek kaltea eragingo diela tarte diruz lagungarriak erabiltzen jarraitzen duten onuradunei, ez badute dokumentazioa aurkeztzen onuradunen erroldan baja ematea ebatzi beharko delako.

Horregatik, epea 2018ko irailaren 28ra arte luzatzea proposatzen da.

Hartara, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hona hemen

ERABAKIA

Lehenengoa. Aldatzea AP-1 eta AP-68 autobideko tarte diruz lagungarrietan ordaindutako bidesariengatik ALHn bizi direnei dirulaguntzak ematea arautzen duten eta Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 12ko 317/2018 Erabakiaren bidez onetsi ziren oinarrien 6. puntuko seigarren paragrafoa, eta honela idatzita geratuko da:

"...Halaber, aurreko deialdietan onuradun izan direnek ere ez dituzte agiri horiek berriro aurkeztu behar, dirulaguntza emateko kontuan hartzen diren inguruabar erabakigarrietako bat aldatu ezean. Hala ere, artikulua honetan ezartzen diren betekizun guztiak betetzeko behar diren agiriak aurkeztu behar dituzte. Dokumentazio berria 2018ko irailaren 28a baino lehen aurkeztu behar da. Horretarako, Arabako Bideak-Vías de Álava, SA (Arabat) sozietateak idazki bat bidaliko die zer agiri behar den azaltzeko. Epealdi horretan izapide hau egiten ez duten onuradunei baja emango zaie".

Bigarrena. ALHAOn argitara dadila agintzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau behin betikoa da bide administratiboan eta beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, argitaratzen den egunaren biharamunetik bi hilabete pasatu baino

lehen, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, jurisdikzio hori arautzen duenak, 46. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorriz. Gainera, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari argitaratzen den egunaren biharamunetik hilabete pasatu baino lehen, eta egokitzen jotzen den beste edozein errekurtso ere bai.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 11

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua

JESÚS MARÍA LÓPEZ UBIERNA